

Mundutarrentzat

Euskal literaturaren berri ematen duen webgune eleaniztuna sortu dute, atzeritarrei hemengo ekoizpenaren berri emateko helburuarekin

AINARA GOROSTITZU – DONOSTIA.- Euskal literatura muga gabe zabaltzeko asmoarekin www.basqueliterature.com webgunea sareratu du Mari Jose Olaziregik euskal literaturaren aditu talde batekin eta EIZIE Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen kudeaketarekin. «Euskal literaturarekin lotura duen edozein alderdiri buruzko produkzioa, banaketa, irakurketa, kritika, historiografia... sarbidea izango den ataria da», Olaziregik deskribatu duenez.

Hemengo irakurleak kontuan izateaz gain, webgune hau munduko interesdunei begira zegoen hutsunea osatzera dator nagusiki; Olaziregiren arabera, atzerrian gero eta handiagoa baita euskal literaturarekiko jakin-mina: «Frankfurten edo antzeko kanpoko foroetan euskal literaturaz sarean zegoenaz galdetzean hamabost-hogei atari konkreten berri eman behar zitzaien, eta bakoitzean informazio zehatza zegoen eta gehienetan euskara hutsez; kanpokoak bestelako informazio osoagoa eskaintzen duen mapa ulergarri bat behar zuen». Sarreraz gain, lau atal ditu dagoeneko sarean dagoen baina osatzeko dagoen atariak oraingoz: Literatura, Katalogoak, Loturak eta Albisteak. Atal eta azpiatal guztiak lau hizkuntzetan egongo dira irakurgai: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Ataria Codesyntax enpresak diseinatu du, «erraz, ulergarri eta erabilgarri» izateko moduan, Luistxo Fernandez Codesyntaxeko arduradunak azaldu duenez. Atari honen babesle nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia da, eta Eusko Jaurlaritzak eta Renoko Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-ek ere diruz lagundu dute. Estonia edo Lituaniako literaturetako antzeko atariak ere du harturik, mamia bilduz bere burua osatzeko erronka du atariak. Ondorengo da oraingoz www.basqueliterature.com-en aurki daitekeena:

- **LITERATURA:** Euskal literaturari buruzko argibide orokorrak ematen ditu atal honek. Hiru azpiatal ditu: Euskal liburugintza, Euskal Literaturaren Historia eta Itzulpengintza. Euskal liburugintzaren atala Jorge Gimenez Bech Euskal Editoreen Elkarteko presidentek Transcript aldizkari elektronikorako idatzitako artikuluekin estreinatzen da, eta aurrerago hainbat ekarpenek osatuko dute. Euskal Literaturaren Historiako azpiatalak euskal literaturaren bilakaera sozio-historikoaren berri ematen du. 11 adituen lanek osatuko dute sail hau, garai eta genero guztietako literatura aztertuz: Jesus Maria Lasagabaster Deustuko Unibertsitateko irakasle emerituak euskal literaturaren eta bere azterketari buruzko gogoetak egingo ditu, sarrera gisa. Ahozko euskal literaturaren atala Joxerra Garzia irakasleak kudeatuko du bertsolaritzaren aldetik, eta bestelako herri tradizioaren aldetik, Igone Etxebarria Labayru ikastegiko kideak jorratuko du. Euskal literatura klasikoaren XVI-XVII. mendeaz Aurelia Arkotxak eta Beñat Oihartzabalek idatziko dute, eta XVII-XIX. mendeetakoaz, berriz, Jean Haritxelharrek. XX. mendeko euskal literaturaz Olaziregik, Lourdes Otaegik, Patri Urkizuk eta Xabier Altzibarrek idatziko dute, narratibaz, poesiaz, antzerkiaz eta saiakeraz idatziko dute, hurrenez hurren. Haur eta gazte literaturaren atala Xabier Etxaniz Erlek kudeatuko du, eta literatura itzuliarena, berriz, Manu

Lopez Gasenik. Itzulpengintzari buruzko sailean, beste hizkuntzetatik euskara egin diren itzulpenen eta euskaratik beste hizkuntzetara egindakoen historia egin du Aiora Jaka Irizar Birminghamgo unibertsitateko irakurleak.

- **KATALOGOAK:** Euskal egileak eta obrak ezagutarazteko atala da hau. «Genero desberdinetan esanguratsuak diren egileei buruzko argibideak eta euren lanen laginak» eskaintzen dira bertan. Oraingo 13 idazleren biobibliografia egin dute: Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Aingeru Epaltza, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Pello Lizarralde, Xabier Montoia, Inazio Mujika Iraola, Lourdes Oñederra, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Arantxa Urretabizkaia eta Iban Zalduarena, hain zuzen. Idazle horien obren laginak lau hizkuntzetan egongo dira irakurgai. Denborarekin atal hau idazle gehiagoren biobibliografiarekin osatzeko asmoa du Olaziregik. Katalogoak, halaber, euskaratik ingelesera, frantsesera, alemanera eta gaztelaniara itzulitako liburuen zerrenda eskaintzen du, eta aurrerago, euskarara itzulietakoena emango du. Atal honetan, gainera, hemeroteka, fonoteka eta bideoteka izango dira, idazleei egindako elkarrizketekin eta beraien irakurketekin osatua.

- **LOTURAK:** www.basqueliterature.com ez dator sarean dagoen ezer errepikatzerara, horretarako Loturak atalean «euskal literaturaz sarean dagoen esanguratsuen» bilduko dute. Susa argitaletxeak kudeatzen duen Armiarma webgunea da bertan lotura nagusia. Horrez gain, Loturak atalean diru laguntzen berri emango dute, elkarteen eta erakundeen helbideak eskainiko, argitaletxeen loturak, aldizkariak, lotura instituzional eta akademikoak, literatura sarietako informazio eta liburutegien datu baseak.

- **ALBISTEAK:** Estibaliz Ezkerra kazetariak berrituko du atal hau. Euskal liburuen gaineko eta, oro har, euskal literaturari buruzko albisteak eskainiko ditu atal honek.

DATUAK

Webgunea: www.basqueliterature.com

Kudeatzailea: EIZIE

Arduraduna: Mari Jose Olaziregi

Webmasterra: Aiora Jaka Irizar

Albistegiaren arduraduna: Estibaliz Ezkerra

Diseinatzailea: Codesyntax

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Renoko Center for Basque Studies

Aritu kolaboratzaileak: Jesus Mari Lasagabaster, Igone Etxebarria, Joxerra Garzia, Beñat Oihartzabal, Jean Haritzelhar, Lourdes Otaegi, Patri Urkizu, Mari Jose Olaziregi, Xabier Altzibar, Xabier Etxaniz Erle eta Manu Lopez Gaseni